

## Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

3. zenbakia

Data 2002-01-07

201 orria

---

**3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK**  
**ALDUNDIA - OGASUNA ETA FINANTZAK**  
**Abenduaren 21eko 1328/2001 Foru Agindua, 309 eredia onartzen duena.**

---

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

#### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*Abenduaren 21eko 1.328/2001 FORU AGINDUA, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ez-aldizkako autolikidazioa egiteko 309 eredia onartzen duena.*

Otsailaren 1eko 49/1995 Foru Aginduak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ez-aldizkako aitorten-autolikidazioa egiteko 309 eredia onartu zuen pezetatan, besteak beste. Era berean, urtarrilaren 4ko 2/1999 Foru Aginduaren bidez 309 eredia onartu zen eurotan.

2002ko urtarrilaren 1etik aurrera, aitorten-likidazio guztiak eurotan bete eta aurkeztu beharko dira bakarrik. Era berean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ez-aldizkako aitorten hori egiteko, foru agindu honen bidez onartutako eredia erabili beharko da.

Foru agindu hau onartzeko arrazoia da 309 eredia moldatu behar izatea urriaren 5eko 1.082/2001 Errege Dekretuaz onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 71. artikulua idazkera berrira. Izan ere, artikulua horren arabera, ez-aldizkako aitorten-likidazio berezia aurkezteko kasuak gehitu daitezke foru agindu bidez.

Era berean, 1.082/2001 Errege Dekretuak bosgarren xedapen gehigarria sartu du Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduan, derrigorrezko prozedura administratibo eta judizialei dagokienez. Xedapen hartan jasotakoaren arabera, Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta prozedura horien barruan egiten diren ondasun salmenten eta zerbitzu prestazioen kasuan, esleipen hartzaileak xedapen horretan aitortutako ahalmenak gauzatzen dituenean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 71. artikulua 7 apartatua araututako ez-aldizkako aitorten-likidazio bereziko ereduaren bidez aitortu eta ordaindu beharko du zergaren kuota esleipen hartzaileak.

Gauzak horrela, hau,

XEDATU DUT

*1. artikulua. 309 eredia onartzea.*

*Bat.* Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ez-aldizkako aitorten-likidaziorako 309 eredia onartu da, foru agindu honen I. eranskinean agertzen dena.

*Bi.* 309 ereduak bi ale ditu:

—Subjektu pasiboaren alea.

—Administrazioaren alea.

*2. artikulua.* 309 ereduak aurkeztera behartuak.

Hona ereduak aurkeztu behar dutenak:

1. Ondasunen batasun barruko eskurapenak egiten dituzten ondorengo subjektu pasiboak, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako identifikatuta badaude beren batasun barruko eskurapenak abenduaren 29ko Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 102/1992 Foru Dekretuak 14. artikuluan jasotako mugara iristeagatik edo artikulua horretan jasotako aukera gauzatzeagatik:

a) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezia duten subjektu pasiboak, erregimen horretara bildutako jarduera garatzera zuzendutako batasun barruko erosketak direnean.

b) Zergaren kenkari osoa edo zati batekoa egiteko eskubidea sortzen ez duten eragiketak soilik egiten dituzten subjektu pasiboak.

c) Enpresari edo profesional gisa ez diharduten pertsona juridikoak.

2. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezira bildutako subjektu pasiboek ere 309 ereduak aurkeztu beharko dute, baldin eta beren jardueraren barruan Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako eta salbuetsi gabeko ondasun higiezin salmentak egiten badituzte eta zerga horren subjektu pasiboak badira abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak 84. artikuluan bat apartatuko 2 zerbakiak jasotakoaren arabera.

3. Era berean, aipatu ereduak aurkeztu beharko dute ondasunen batasun barruko eskurapenak eta abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak 84. artikuluan bat apartatuko 2 zerbakiak aipatutako eragiketak egiten dituzten subjektu pasiboek. Eragiketei baliokidetasun gainkarguaren erregimen berezia ezarriko zaie. Era berean, aipatu ereduak aurkeztu beharko dute baliokidetasun errekarua aplikatu beharreko jarduerak bakarrik egiten dituzten subjektu pasiboek, 102/1992 Foru Dekretuak 20. artikuluan Bi apartatuan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuak 8. artikuluan 1 apartatuan jasotako salbuespena izateari uko egin dioten eragiketak egiten dituztenean.

4. Era berean, enpresari edo profesional izaera ez duten eta ordain truke garraioberri berrien batasun barruko eskurapenak egiten dituzten pertsona edo entitateek 309 ereduak aurkeztu beharko dute.

5. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren enpresari edo profesionalak diren esleipen hartzaileek 309 ereduak aurkeztu beharko dute, derrigorrezko prozedura administratibo edo judizialean, baldin eta ahalmena badute zergaren subjektu pasiboaren izenean eta kontura aitorten-likidazioa aurkezteko eta esleipen eragiketarik ateratzen den zenbatekoaren aitorten-likidazioa eta ordainketa egiteko, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduko bosgarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera.

6. Hala erabakitzen diren zergaren subjektu pasiboak ere aurkeztuko dute.

*3. artikulua.* 309 ereduak aurkezteko epea.

*Bat.* 309 ereduak hiruhilabeteko likidaziorako epea amaitzen den ondorengo hilabeteko lehenengo hogeita bost egun naturaletan aurkeztu eta ordaindu beharko da. Dena den, azkeneko likidazioaldiari dagokion aitortpena ondorengo urteko urtarrilaren lehendabiziko hogeita hamar egunetan aurkeztu beharko da.

*Bi.* Aurreko apartatuan xedatutakotik salbuetsita daude garraio bide berrien batasun barruko eskurapenen aitortpen-likidazioak. Horien kasuan 309 ereduak garraio bidea eskuratu eta hogeita hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko da eragiketa egin denetik aurrera eta, beti ere, garraio bide horiek behin betiko matrikulatu baino lehen.

*Hiru.* Derrigorrezko prozedura administratibo edo judizialak badira, aurkezpen epea hilabetekoa izango da esleipenaren zenbatekoa ordaintzen denetik aurrera.

*4. artikulua.* 309 ereduak aurkezteko lekua.

Zergabilketarako laguntzaile gisa aritzeko Zergabilketa Erregelamenduak xedatzen duen eran baimendutako entitate baten bitartez aurkeztuko da 309 ereduak (bankuak, aurrezki kutxak eta kreditu kooperatibak).

*Amaierako xedapena.*

Foru agindu hau 2002ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Donostia, 2001eko abenduaren 21a.—Antton Marquet Artola, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua.

(13204) (13775)

I ERASKINA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Organ de Finantza Departamentua  
Departamento de Hacienda y Finanzas  
www.gipuzkoa.net/oguzaina



\*8400030152002\*

**BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA**  
**IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO**  
Aldizkakoa ez den aitorten-likidazioa / Declaración liquidación no periódica  
**Aitorpen-likidazioa / Declaración-liquidación**

**309**

Ekitaldia: Hiriabilekoa:  
Ejercicio: Trimestre:

Zergaduna Obligado tributario	IFZ N.I.F.	Deiturak eta izena, edo sozietaetaren izena Apellidos y nombre o razón social						Awagrama Anagrama
	Zerga helbidea Domicilio fiscal	Zenb. Núm.	Letra Letra	Eskaiera Escuela	Oina Piso	Eskua Mano	Telefonoa Teléfono	
	Udalerria Municipio	Posta kodea Cód. Postal	Galaxia Clave	Probintzia Provincia			Galaxia Clave	

Eskubidatzailea Transmitente	IFZ N.I.F.	Deiturak eta izena, edo sozietaetaren izena Apellidos y Nombre o razón social		Probintzia Provincia	Hiria País
	Zerga helbidea Domicilio fiscal				

Zerga egoera Situación tributaria	1. Nekazaritza, abeltzaintza eta arantzaren erregimen berezira bildutako subjektu pasiboa / Sujeto pasivo acogido al Régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca	<input type="checkbox"/>
	2. Balioakidetasun errekararen erregimen berezira bildutako subjektu pasiboa / Sujeto pasivo acogido al régimen especial del recargo de equivalencia	<input type="checkbox"/>
	3. Kenkari eskubiderik gabeko subjektu pasiboa (BEZaren Legeko 14.Bat.2 artikulua) / Sujeto pasivo sin derecho a deducción (Art. 14.uno, 2º ley del IVA)	<input type="checkbox"/>
	4. Enpresaria edo profesionala ez den pertsona juridikoa / Persona jurídica no empresario o profesional	<input type="checkbox"/>
	5. Enpresaria edo profesionala ez den pertsona fisikoa / Persona física no empresario o profesional	<input type="checkbox"/>
	6. Lehendik jasota ez dauden bestelako zerga egoera batzuk / Otras situaciones tributarias no contempladas anteriormente	<input type="checkbox"/>

Eginiza zergagarria Hecho imponible	1. Ondasunen batasun barruko erosketak / Adquisiciones Intracomunitarias de bienes	<input type="checkbox"/>
	2. Garraiobide berrien batasun barruko erosketak / Adquisiciones Intracomunitarias de bienes de transporte nuevos	<input type="checkbox"/>
	3. Subjektu pasiboaren inbertsioa / Inversión del sujeto pasivo	<input type="checkbox"/>
	4. Inbertsioko ondasun higiezinaren salmentak / Entregas de bienes de inversión de naturaleza inmobiliaria	<input type="checkbox"/>
	5. Ondasun salmentak eta zerbitzu prestaketak deribatorreko eztabaio prozedura administratibo eta judizialak / Entregas de bienes y prestaciones de servicio en procedimientos administrativos y judiciales de ejecución forzosa	<input type="checkbox"/>
	6. Lehendik jasota ez dauden bestelako kasu batzuk / Otros supuestos no contemplados anteriormente	<input type="checkbox"/>

Ezangorri eta datu teknikoak Características y datos técnicos	Ibilgailuak Vehículos	Marka Marca	Modelo Modelo	Modeloa Modelo
		Identifikazio zk. (buztindatza) N.º Identificación (bastidor)		Sailkapena Clasificación
	Urontziak Barcos	Fabrikatzailea Fabricante	Modelo-Modeloa Tipo-Modelo	
		Identifikazioa (fabrikazio zk.) Identificación (N.º construcción)		Gibetako batura Estora máxima
	Aireontziak Aeronaves	Fabrikatzailea Fabricante	Modeloa Modelo	
		Serie zk. N.º de serie	Fabrikazio urtea Año fabricación	Aineratzeko gehienezko pisua (kg) Peso máximo despegue (kg.)

Likidazioa Liquidación	Oinarri ezargarria / Base imponible				Eza / Tipo				Knota / Cuota			
	Erregimen orokorra Régimen general	01				02				03		
Balioakidetasun errekarria Recargo de equivalencia	04				05				06			
	07				08				09			
	10				11				12			
	13				14				15			
	16				17				18			
	19				20				21			
	Ordaintzeko emaitza Resultado a ingresar	03	06	09	12	15	18	21	-----			

Data eta dinadura Fecha y firma	Zergapekoaren edo ordezkariaren sinadura Firma de Obligado tributario o representante
------------------------------------	--

Ordainagaria Justificante de Ingreso	Banku edota aurrezki kutxetan ordaindu behar da / El ingreso se efectuará en Bancos y/o Cajas de Ahorro
---	---

### 309 EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR EL MODELO 309

Eurotan adierazitako laukiak bi zenbaki hamartarrez bete beharko dira beti.

**ZERGALDIA:** Aitorpenean jaso beharreko hiruhilabetearen ordena-zenbakia jarri behar da (1, 2, 3 edo 4).

**ZERGAPEKOA:** Identifikazio datuak jarri behar dira.

#### **ESKUALDATZAILA:**

Ondasunen batasun barruko erosketak eta garraibide berrien batasun barruko erosketak direnean bete beharko da bakarrik.

Nortasun agiria, deiturak eta izena edo sozietatearen izena, eta eskualdatzailearen herria jarri behar dira.

#### **ZERGA EGOERA**

Dagokion laukian X jarri behar da.

#### **ZERGA-GAIA**

Aitorpen-likidazioa aurkeztu beharra ekarri duen zerga-gaiari dagokion laukian X jarri behar da.

#### **EZAUGARRIAK ETA DATU TEKNIKOAK**

**IBILGAILUAK:** ibilgailuaren fiska teknikoan dauden datuak jarri behar dira.

**URONTZIAK:** urontziaren ezaugarrien orrian dauden datuak jarri behar dira.

**AIREONTZIAK:** aireontziaren ezaugarrien orrian dauden datuak jarri behar dira.

#### **LIKIDAZIOA**

01etik 09 laukira: %4, %7, eta %16an kargatutako oinarri ezargarririk eta hortik ateratzen diren kuotak jarri behar dira.

10etik 21 laukira: %0,5, %1, %1,75 eta %4an kargatutako oinarri ezargarririk eta hortik ateratzen diren kuotak jarri behar dira, baliokidetasun errekaruari dagokionez.

#### **ZERGAPEKOA:**

**Data eta sinadura jartzeko tartea**

BEZaren 102/92 Foru Dekretuko laugarrengo xedapen gehigarrian aipatutako prozedura administratibo eta judicialen barruan ondasun erosketak eta zerbitzu prestazioak egiten direnean, subjektu pasiboaren izenean eta kontura aitorpena aurkezten duen esleipen hartzailearen sinadura jarri behar da.

#### **AURKEZPEN TOKIA**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren zergabilketarako laguntzaile gisa aritzeko baimena duten kreditu eta aurrezkitako diru txetean aurkeztu beharko da 309 ereduko aitorpen-likidazioa.

#### **AURKEZPEN EPEA**

Garraibide berrien batasun barruko erosketak badira, eredu hau aurkezteko epea hogeita hamar egunekoa izango da eragiketa egiten denetik aurrera eta, nolabehi ere, garraibide horiek behin betiko matrikulatu aurretik. Zirkunstantzia horietan eroskitako ibilgailu bakoitzeko bete beharko da eredu hau. Beraz, ezin da aurkeztu bi garraibide berri edo gehiagori dagokion likidazio bat.

Derrigorrezko ekzekuzio prozedura judicial edo administratiboak badira, aurkezpen epea hilabeteak izango da, esleipenaren zenbateko ordaintzen denetik aurrera. Aitorpen-likidazioa ezin da eragiketaren faktura egin aurretik aurkeztu.

Gainerako kasuetan, apiril, uztail eta urriaren lehen hogeita bost egun naturaletan aurkeztu behar da. Azen likidazio aldiko 309 ereduko aitorpena ondorengo urteko utarrilaren lehen hogeita hamar egun naturalean barruan aurkeztu behar da.

Las Casillas de importes en euros, deberán rellenarse, en todos los casos, con 2 decimales.

**PERIODO:** Deberá consignar la cifra que corresponde al período trimestral (1, 2, 3 ó 4) por el que efectúa la declaración.

**OBLIGADO TRIBUTARIO:** Deberá consignar los datos de identificación.

#### **TRANSMITENTE:**

Sólo deberá cumplimentarse en el caso de realizar adquisiciones intracomunitarias de bienes y adquisiciones intracomunitarias de medios de transporte nuevos.

Deberá consignar el N.I.F., los apellidos y el nombre o Razón Social y el País del Transmitedente.

#### **SITUACION TRIBUTARIA**

Marcará con una X la casilla que corresponda.

#### **HECHO IMPONIBLE**

Marcará con una X la casilla correspondiente al hecho imponible que motiva la presentación de la declaración-liquidación.

#### **CARACTERÍSTICAS Y DATOS TÉCNICOS**

**VEHICULOS:** Se consignarán los datos que figuran en la ficha técnica del vehículo.

**BARCOS:** Consigne los datos que figuran en la hoja de características de la embarcación.

**AERONAVES:** Consigne los datos que figuran en las hojas de características de la aeronave.

#### **LIKIDAZIOA**

De las casillas 01 a la 09: Se harán constar las bases imponibles gravadas, en su caso, a los tipos del 4%, 7% y 16 % y las cuotas resultantes.

De las casillas 10 a la 21: Se harán constar las bases imponibles gravadas, en su caso, a los tipos del 0,5%, 1%, 1,75% y 4% y las cuotas resultantes, correspondientes al recargo de equivalencia.

#### **OBLIGADO TRIBUTARIO:**

**Espacio reservado para la fecha y firma.**

En los supuestos de entregas de bienes y prestaciones de servicios efectuadas en el marco de los procedimientos administrativos y judiciales de ejecución forzosa a que se refiere la disposición adicional cuarta del D.F. 102/92 del IVA, deberá constar la firma del adjudicatario que, en nombre y por cuenta del sujeto pasivo, presenta la declaración.

#### **LUGAR DE PRESENTACION**

La declaración-liquidación modelo 309 deberá presentarse en las entidades Bancarias de crédito o ahorro que tengan reconocida la condición de Entidades Colaboradoras en la recaudación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

#### **PLAZO DE PRESENTACION**

Si se trata de adquisiciones intracomunitarias de medios de transportes nuevos, el plazo de presentación del presente modelo será de treinta días desde la realización de la operación y, en cualquier caso, antes de la matriculación definitiva de dichos medios de transporte. Se deberá cumplimentar este modelo por cada vehículo comprado en estas circunstancias no pudiendo por lo tanto realizarse la liquidación simultánea del impuesto correspondiente a dos o mas vehículos de transporte nuevos.

Si se trata de procedimientos judiciales o administrativos de ejecución forzosa, el plazo de presentación es de un mes desde el pago del importe de la adjudicación, no pudiendo procederse a dicha presentación con anterioridad a la emisión de la factura que documente la operación.

En los demás supuestos, la presentación se efectuará en los veinticinco primeros días naturales de los meses de abril, julio y octubre. La correspondiente al último período de liquidación deberá presentarse durante los treinta primeros días naturales del mes de enero del año siguiente.